

# Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioa

---

Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarra,

Rio de Janeiron 1992ko ekainaren 3tik 14ra bildu ondoren,

1972ko ekainaren 16an Stockholmen onartutako Giza Ingurugiroari buruzko Nazio Batuen Biltzarraren Adierazpena berretsita,

eta adierazpen honetan oinarritzen saiatuta,

Estatuen arteko lankidetzan maila berriak jartzearen bidez, gizarteko funtsezko sektoreen bidez eta

pertsonen bidez mundu mailan aliantza berri eta berdina jartzeko helburuarekin,

guztien interesak errespetatuko diren eta ingurugiroaren sistema osoa eta munduko garapena babestuko dituen nazioarteko akordioa lortzen saiatuta Lurraren natura osoa eta interdependentea, gure etxea, dela onartuta,

Ondorengoia aldarrikatzen dute:

## 1. printzipioa

Gizakiak garapen jasangarriarekin lotutako arduren zentroa dira. Naturarekin batera bizi eta osasuntsua eta produktiboa izateko eskubidea dute.

## 2. printzipioa

Nazio Batuen gutunaren eta nazioarteko eskubideen printzipioen arabera, estatuak beren baliabideak beren ingurugiroko eta garapeneko politiken arabera ustiatzeko eskubidea dute eta bere jurisdikzioaren barruan eta bere kontrolpean egiten diren jarduerak beste estatuetakako edo beren jurisdikzio nazionaletik kanpo dauden gunetako ingurugiroari kalterik ez egiteko ardura dute.

## 3. printzipioa

Garapenerako eskubidea uneko eta etorkizuneko belaunaldien garapeneko eta ingurugiroko beharrei berdinduz erantzuteko moduan erabili behar da.

## 4. printzipioa

Garapen jasangarria lortzeko, ingurugiroa babestea garapeneko prozesuaren zati izango da eta ezingo da bereizita kontuan hartu.

## 5. printzipioa

Garapen jasangarrirako ezinbesteko baldintza gisa, estatu eta pertsona guztiek pobrezia desagertarazteko lanean elkarlana egin beharko dute, bizitza-mailen arteko desberdintasuna murrizteko eta munduko herrialde gehienek beharrei hobeto erantzuteko.

## 6. printzipioa

Garapen bidean dauden herrialdeen, bereziki gutxien aurreratuta daudenen eta ingurugiroaren aldetik ahulenak direnen, egoera eta behar bereziei lehentasuna eman beharko litzaieke. Ingurugiroaren eta garapenaren alorretan nazioartean hartzen diren neurrietan ere hartuko dira kontuan herrialde hauen interesak eta beharrak.

## 7. printzipioa

Estatuek mundu mailako elkartasun espirtuarekin egin beharko dute elkarlana, Lurraren osasuna eta ekosistemaren osotasuna kontserbatzeko, babesteko eta berrezartzeko. Munduko ingurugiroaren degradazioa maila desberdinean eragin dutela kontuan hartuta, estatuak ardurak komunak baina berezituak dituzte. Nazioarte mailako garapen jasangarria lortzeko bidean, garatutako herrialdeek beren ardurak onartzen dute, beren gizarteak ingurugiroan egiten duen presioa nolakoa den ikusita eta eskura dituzten teknologia eta finantza-baliabideak kontuan hartuta.

## 8. printzipioa

Jende guztiarentzako garapen jasangarria eta bizi-kalitate hobea lortzeko, estatuak produkzio- eta kontsumo-mota eutsiezinak murriztu eta deuseztatu egin beharko lituzkete eta politika demografiko egokiak sustatu beharko lituzkete.

## 9. printzipioa

Estatuek garapen jasangarria lortzeko beren gaitasuna sendotzeko elkarlana egin beharko lukete; horretarako, jakinduria zientifikoa areagotu egin beharko lukete, ezagutza zientifikoen eta tekniken trukearen bidez. Gainera, teknologien –horien artean teknologia berrien eta berritzaileen– garapena, egokitzapena, hedapena eta transferentzia areagotu beharko lukete.

## 10. printzipioa

Ingurugiroko auziez aritzeko modurik egokiena hiritar interesatu guztiek dagokien mailan parte hartzea izango litzateke. Nazio mailan, pertsona guztiek izan behar dute herri-agintariak ingurugiroari buruz duten informazioa eskuratzeko aukera, baita komunitate horientzako arriskutsuak izan daitezkeen materialei eta jardueri buruzko informazioa eskuratzeko aukera ere. Horrez gain, erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukera ere izan behar dute. Estatuak herriaren sentsibilizazioa eta parte-hartzea erraztu eta bultzatu egin beharko lituzkete eta horretarako informazioa guztien eskura jarri beharko lukete. Prozedura

judizialetara eta administratiboetara, adibidez kalteen ordainketetara eta baliabide egokietara, sarbide eragingarria ere eskaini beharko litzateke.

## **11. printzipioa**

Estatuek ingurugiroari buruzko lege eragingarriak promulgatu beharko dituzte. Ingurugiroari buruzko araudiek, antolakuntza-helburuek eta lehenetsunak aplikatzen direneko ingurugiroaren eta garapenaren egoera islatu behar dute. Herrialde baten aplikatutako araudia ezegokia izan daiteke eta beste herrialde bati, bereziki garapen bidean dauden herrialdeei, gastu sozial eta ekonomiko justifikaezinak eragin dakizkioke.

## **12. printzipioa**

Estatuek nazioarteko ekonomia-sistema lagungarria eta irekia sustatzeko elkarlana egin beharko lukete; sistema horrek herrialde guztien hazkunde ekonomikoa eta garapen jasangarria eragin beharko lituzke, ingurugiro degradazioko arazoei hobeto aurre egiteko. Ingurugiroko helburuak dituzten merkataritza politikoko neurriek ez lukete bazterketa arbitrarioa edo justifikaezina eragin behar eta, era berean, ez lukete nazioarteko merkataritzaren murrizketa eragin behar. Herrialde inportatzailearen jurisdikziotik kanpo gertatutako ingurugiroko arazoei erantzuteko alde bakarreko neurriak hartzea ekidin beharko litzateke. Mugaz haraindiko eta mundu mailako arazoak konpontzeko neurriak, ahal den neurrian, nazioarteko adostasunean oinarritu beharko lirateke.

## **13. printzipioa**

Kutsaduraren eta ingurugiroko beste kalteen biktimen arduren eta kalte-ordainen inguruan estatuek legeria nazionalak garatu beharko dituzte. Estatuek, halaber, beren jurisdikzioaren barruan edo beren jurisdikziotik kanpo beren kontrolpean egindako jarduerak eragindako ingurugiroko aurkako kalteen ardurei eta kalte-ordainei buruz nazioarteko lege berriak egiteko era zabalagoan eta erabakigarriagoan egin beharko lukete elkarlana.

## **14. printzipioa**

Estatuek eragingarritasunez egin beharko lukete elkarlana beste estatu batek ingurugiroaren degradazio larria eragiten duten edo giza osasunarentzako kaltegarriak diren jarduerak eta sustatziak berrezartzean eta transferitzean atzera eginarazteko edo hori ekiditeko.

## **15. printzipioa**

Ingurugiroa babesteko, estatuek arretaren irizpidea beren gaitasunen arabera aplikatu beharko dute. Kalte larria edo atzeraezina eraginez gero, ziurtasun zientifikoaren falta ez da erabiliko arrazoi gisa ingurugiroaren degradazioa ekiditeko neurri ekonomikoak hartzeko garaian.

## 16. printzipioa

Nazio mailako agintariek ingurugiroko gastuak eta bitarteko ekonomikoen erabilera barnera daitezzen sustatu beharko lukete. Horretarako, kutsatzen duenak, hasiera batean, kutsaduraren gastuei berak aurre egin behar diela esaten duen printzipioa eta interes publikoa kontuan hartu beharko lirateke, eta nazioarteko merkataritzari eta inbertsioei kalterik ez egiteko moduan egin beharko litzakete.

## 17. printzipioa

Ingurugiro-inpaktuaren inguruko ebaluazioak egin beharko dira, nazio mailako bitarteko gisa, seguru asko ingurugiroan inpaktu negatiboa izango duen eta nazioko agintari eskudunen erabakiekin lotuta dagoen edozein jardueraren inguruan.

## 18. printzipioa

Hondamendi natural batek edo larrialdi-egoera batek beste estaturen baten ingurugiroari kalte egin badiezaioke hondamendia jasan duen edo larrialdi-egoeran dagoen estatuak beste estatuari horren berri emango dio. Nazioarteko komunitateak ahal duen guztia egin beharko du kalteak jasaten dituzten estatuei laguntzeko.

## 19. printzipioa

Estatuek informazio egokia emango diete eta aurretik eta era egokian jakinaraziko diete mugaz haraindiko ingurugiroko aurkako efektuak sor ditzaketen jardueren eragina jasan dezaketen estatuei eta garaiz eta fede onez estatu horiei kontsulta egin beharko diete.

## 20. printzipioa

Emakumeek lan garrantzitsua egiten dute ingurugiroaren antolaketan eta garapenean. Horrenbestez, garapen jasangarria lortzeko ezinbestekoa da berek aintzat hartzea.

## 21. printzipioa

Munduko gazteen sormena, ideiak eta balioa mugiarazi egin beharko lirateke, garapen jasangarria lortzeko mundu mailan elkartasuna lortzeko eta guztiontzako etorkizun hobea segurtatzeko.

## 22. printzipioa

Herrialde indigenek eta beren komunitateek eta tokian tokiko beste komunitateek funtsezko lana dute ingurugiroaren antolaketan eta garapenean, beren ezagutza eta jarduera tradizionalak direla eta. Estatuak beren identitatea, kultura eta interesak behar bezala onartu eta babestu beharko lituzkete eta ahal duten guztia egin beharko lukete garapen jasangarria lortzeko lanean parte-hartzea izan dezaten.

### **23. printzipioa**

Zapalkuntza, menderatzea eta okupazioa jasaten dituzten herrialdeen ingurugiroa eta balibide naturalak babestu egin behar dira.

### **24. printzipioa**

Gerra, definizioz, garapen jasangarriaren etsaia da. Ondorioz, estatuek ingurugiroa babesten dituzten nazioarteko eskubideen xedapenak errespetatu egin behar dituzte gatazka armatuen garaian eta, behar denaren arabera, ondoren garapenean lagundu egin behar dute.

### **25. printzipioa**

Bakea, garapena eta ingurugiroaren babesa elkarrekiko menpekoak dira eta ezin dira bereizi.

### **26. printzipioa**

Estatu guztiek ingurugiroari buruzko eztabaida guztiak era baketsuan konpondu behar dituzte, Nazio Batuen gutunean adierazten diren bideak jarraituta.

### **27. printzipioa**

Adierazpen honetako printzipioak aplikatzeko garaian eta garapen jasangarriaren alorrean nazioarteko eskubideen ondorengo garapenean, estatuek eta pertsonak fede onez eta elkartasun espirituarekin egin beharko dute elkarlana.